



## Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalen eta erakundeen homologazioa

Urtea: 2024 | Ekonomia Sustapena

### Deskribapena

Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalen eta erakundeen homologazioa

### Entitate eskatzaileak:

Homologazioa eskatu ahal izango dute Gipuzkoan kokatutako enpresa edo erakunde publiko edo pribatuek

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea. Hori erakundearen ordezkariak sinatutako erantzukizuneko adierazpen baten bidez egiaztatuko da.
- Ekintzaileari laguntza zerbitzua emango dionaren lantokia Gipuzkoan egotea.
- Zerbitzua emateko behar diren instalazioak izan behar dituzte, eta lau lagunentzako gutxieneko edukiera duen bilera gela bat ekipo informatikoekin, konexio telematikoarekin eta posta elektronikoko helbidearekin.
- Instalazioek herritarren irisgarritasuna ahalbidetzea.
- Zerbitzuak EAEko hizkuntza ofizialetan emango direla bermatzea.
- Gutxienez, hiru urteko esperientzia egiaztatua izatea 4.2 artikuluan aurreikusitako enpresak sortzeko prozesuetako aholkularitzan eta laguntzan eta/edo eskaini nahi diren 4.5 artikuluan aurreikusitako azpieremuetan.
- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egoera erregularizatua izatea.

### Aholkularitza zerbitzuak ematen dituzten pertsonen honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Unibertsitate graduko titulazioa (edo baliokidea) eta enpresak sortzeko eta enpresei zerbitzuak emateko prozesuetako aholkularitzan eta laguntzan, gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua; edo enpresak sortzeko eta enpresei zerbitzuak emateko prozesuetako aholkularitzan eta laguntzan, gutxienez hamar urteko esperientzia egiaztatua.



- Hala badagokio, C1 mailaren baliokidea den euskara titulua (edo baliokidea).
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza, enpleguaren, enpresaren eta ahalduen ekonomikoaren eremuan, 25 ordukoa.

**Homologazioa eman ahal izateko, profesionalak eta haren entitateak artikulua honetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.**

### **Zerbitzu homologatuak**

- 1) Bideragarritasun plana
- 2) Laguntza eta turoretza zerbitzuak.
  - Kontabilitate jarduera, liburu eramate, eta zerga eta lan aholkularitzako jardueretan laguntzea.
  - Enpresa zuzendaritzari eta kudeaketari buruzko aholkularitza.
  - Jarduera juridikoak (jabetza intelektuala barne) eta DBL Ori buruzko aholkularitza.
  - Merkaturatzea, marketina eta komunikazioa: estrategiak, logotipoaren eta irudi korporatiboaren diseinua eta oinarriko papergaiak; diseinua, errotuluak eta katalogoak; publizitate kanpainen diseinua (merkatura ateratzea).
  - Interneteko posizionamendua.
  - Merkatu azterketak.
  - Jasangarritasuna eta ingurumena eta ekonomia zirkularra.

**Laguntza eta turoretza zerbitzuak soilik emango zaizkie bideragarritasun plana egiteko zerbitzua alde aurretik jaso duten proiektuei eta enpresa gisa eratu diren proiektuei, gehienez urtebeteko epean, jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta ematen zaienetik.**

Zerbitzuak emateko **gehienezko dedikazioa** izango da:

- 25 ordu enpresa sortzeko proiektu bakoitzari buruzko aholkularitza emateko eta Bideragarritasun Plana egiteko.
- 25 ordu, laguntza eta turoretzako zerbitzuetarako. (bat proiektu bakoitzeko)

### **Prozedura:**

Eskaerak jasotzen diren hurrenkeran ebatziko dira, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Eskaera jaso den eguntzat hartuko da, deialdiko baldintza guztiak betetzen direla eta espedientea osatua dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa jaso den azken data.

### **Homologazioaren ondorioak**

Lortutako homologazioari esker, aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak eman ahal izango zaizkie Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak sustatu eta finantzatutako eta, hala badagokio, Europar Batasunak kofinantzatutako enpresak sortzeko prozesuetan (batez ere autoenplegua eta mikroenpresak) konprometitutako pertsonen, laguntza programak arautzen dituzten araudietan hala aurreikusten denean, eta, orobat, dagokion ordain ekonomikoa jaso ahal izango dute.



#### Homologazioaren iraupena:

Homologazioak **bost urteko** iraupena izango du, beraz, bosgarren urtean berritu egin beharko da.

#### Beharreko dokumentazioa:

- ◆ Eskabide-Orria.
- ◆ Entitatearen ardurapeko adierazpena.
- ◆ Profesionalaren ardurapeko adierazpena
- ◆ Entitatearen formulário.
- ◆ Profesionala formularioa.
- ◆ Zerga betebeharretan egunean dagoela egiaztatzea.
- ◆ Gizarte Segurantzako edota entitate laguntzaileko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzea.
- ◆ Bestelako dokumentazioa.

#### Araudi aplikagarria

[Maiatzaren 8ko 73/2021 Foru Agindua, enpresak sortzeko prozesuetan konprometituta dauden pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak ematen dituzten profesionalak eta entitateak homologatzeko prozesua arautzen duena](#)

[Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoaren emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko 2024ko deialdia.](#)

(2024ko apirilaren 23koa GAO 78 zk)

#### Eskaerak aurkezteko epea:

2024ko maiatzaren 8an, eguerdiko 13.00etan amaituko da

Eskaera eta erantsitako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez baino ez dira aurkeztuko (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>).

#### Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

##### Telefonoak:

- ◆ Kudeaketa teknikoak:
  - 943-112287
  - 943-112252
- ◆ Kudeaketa Administrazioa: 943-113770 [sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus)

#### Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak
- [Ekonomia Sustapena Homologazioa Autoenplegua](#)